

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarrizko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuak zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko. Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaien gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

6. KAPITULUA

ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK

Sarrerako hitzak

Dekoratuak tresneria egokiz argiztatu behar dira. Hori gauza jakina da, baina, itzal bat proiektatu nahi dugunean edo jai-giroa adierazi, nola egin? Kapitulu honetan, beste batzuen artean lanparen eta fokuen ezaugarriak ikusiko ditugu; argia koloreztatzeko edo mozteko osagarriak, argiaren intentsitatea erregulatzeko teknikak eta abar. Dendetan aurki dezakeguna ezagutzeak, sortu nahi dugun giroa lortzeko behar izango ditugun argiak aukeratzen lagunduko digu.

Lantegia atalean argi naturala eta artifiziala nahasteak nola eragiten duen eszena baten dramatikotasunean ikusiko dugu.

Atalak

- Foku islatzaile aldakorra
- Foku islatzaile leuna
- Ziklorama argiak
- Sorta paraleloko islatzaileak
- Fresnel
- Argi soslaituko proiektoreak
- Euskarriak
- Hegalak
- Konoak
- Banderak
- Pantailak
- Koloreak eta formak
- Argi erregulatzailak

-LANTEGIA ATALA: ariketak argiztapen mistoz

AMARRUAK

Argiztapen plan moldez antolatze eta, estutasunetik arrakastatsu ateratzeko, hainbat amarru ikusiko ditugu.

1. Foku baten argi gogorra gainazal zuri baten kontra edo sabai zuri baten kontra errebotaraziz argi barreiatuak sortzen duen efektua lor dezakegu.
2. Sukalde bateko edo ikasgela bateko fluoreszente instalazioaz balia gaitzke dekoratu hori argi leunez eta itzalik gabe argiztatzeko.
3. Bideo-kamerarekin grabatzerakoan, dekoratuaren argiztapena behar bezala ikusteko, bideo-kameraren beraren LCD pantailaz baliatuko gara; LCD pantailarik ez balu, alboan monitore bat izatea komeni da. Izan ere, ikusgailuak ez ohi du argiztapena zehaztasunez erakusten eta, zuzenean begiratzuz gero, gure begiek grabatuko den eremua baino askoz ere eremu zabalagoa ikusten dute, zehaztasuna galduz.
4. Dekoratu bateko argiztapena urria denean, zurien balantze berria egitea komeni da, irudi egokia izateko.
5. Izadiak dekoratuetan aplikatzeko moduko ideiak ematen dizkigu. Esaterako: foku baten aurrean zuhaitz baten adarraren itxurako zerbait jartzen badugu, grabatutako irudian kanpoko zuhaitz baten itzala izango dugu.
6. Gainazal garden batean hainbat zinta zerrenda paraleloki jartzen baditugu eta dena foku baten aurrean kokatu, kartzela bateko burdinsarearen itzala izango dugu.

LANTEGIA: ariketak argiztapen mistoz

Atala ikusi ondoren, bideoan aipatu diren beharrak eta zaintze-lanak zerrenda batean jaso idatziz. Tresnak zaintzeko eginbeharrak zergatik diren garrantzitsuak berraztertu taldearekin, lan bakoitzaren arrazoiak gainera hausnarketa egiteko eskatuz ikasleei.

Ariketa egiteko beharko dugun materiala hauxe da:

- bideo-kamera eta tripodea
- goritasun-bonbilla garden bat
- eguneko argia ematen duen goritasun-bonbilla bat
- kontsumo txikiko bonbilla bat
- Paper beltza
- Zinta itsaskorra

(Hiru bonbillak potentzia berekoak izatea komeni da.)

Ariketa egiteko, lehenengo, dekoratuko argiak jarriko ditugu; ondoren, dekoratuko alde bat aukeratuko dugu eta lau plano egingo dizkiogu –plano finko ireki bat, plano finko itxi bat, zoom bat eta panoramika bat–. Emaitzak alderatzeko, lau planoko serie bakoitza egiteko erabili ditugun argiztapen-mota, lanparen potentzia eta diafragmaren irekidura jasoko ditugu koadernoan.

Has gaitzen.

Dekoratu leihotik sartzen den argiarekin eta goritasun-lanpara gardenarekin argiztatuko dugu. Bideo-kameran argi naturalerako iragazkia hautatuko dugu. Zurien balantzea egingo dugu, hautatutako balioak koadernoan jasoko ditugu eta lau planoko lehen seriea grabatuko dugu.

Lehenengo dekoratua jarraitzen dugu, leihotik sartzen den argiarekin eta goritasun-lanpara gardenarekin argiztatutako dekoratua. Orain iragazkia aldatuko dugu. Argi artifizialerako iragazkia hautatuko dugu eta zurien balantzea egin gabe, hautatutako balioak koadernoan jaso eta lau planoko beste serie bat egingo dugu.

Grabatutako planoetan zera ikus dezakegu: argi naturalerako iragazkiarekin egindakoetan tonu laranja agertzen zaizkigu nagusi; argi artifizialerako iragazkiarekin egindakoetan, berriz, tonu urdina da nagusi.

Jarraian, beste bi plano serie egingo ditugu: bat argi naturala eta eguneko argia ematen duen goritasun-bonbillarena nahastuz; eta bestea, argi naturala eta kontsumo urriko bonbillarena nahastuz.

HIZTEGIA

Argiztatze-tresnen osagarriak: Argiaren kalitatea kontrolatzen laguntzen diguten elementu guztiak. Ikus-entzunezkoak grabatzerakoan gehien erabiltzen diren osagarriak hauexek dira: argien euskarriak, hegaltxoak, konoak, banderak, pantailak, gelatinak, birikak eta goboak.

Lanpara: Energia elektrikoa argi-energia bilakatzen duen elementua. Ikus-entzunezkoak grabatzerakoan gehien erabiltzen diren lau lanparak hauexek dira: goritasun-lanparak, lanpara halogenoak, deskargakoak eta fluoreszenteak.

Argiztapen-parrilla: Estudioetako eta platoetako argiztatze ohikoa sabaiari loturik jarri ohi da eta barra metalikoz osatutako sare moduko batez dago osatua. Barra horietan eskegitzen dira argiak. *Argiztapen-parrilla* deitzen zaio.

Pantaila islatzailea: Argi-izpiak bideratzeko. Oro har, gainazal landua duen ontzi ireki moduko bat izaten da eta bonbillak igortzen dituen ergi-izpien norabidea kontrolatzeko gailua da. Hainbat islatzaile daude: fokatze aldakorreko islatzaileak; argi leuneko islatzaileak; ziklorama-argiak; unitate trinkotuak; eta Fresnel lentea duten islatzaileak.

Argiztapenaren erregulatzaile elektronikoa: Argi-iturri baten argi-fluxuaren intentsitatea aldatzeko gailu elektronikoa.

LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Bartzelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com

SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAU

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA**
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA**
- 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN**
- 4.- ARGIA**
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA**
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK**
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK**
- 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN**
- 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK**
- 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK**
- 11.- GRABATZEN**

Ekoizia:

iadi

LG- VI-29 / 06

Banatzaila:



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikusmaterial honek
Hezkuntza,
Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena
du.

2006/03/23